



# Euskal Haziak

Haziak idazle 2024:  
hitza ahoan



## LEHIAKETAZ BI HITZ

2016an Euskal Haziak elkarteak ipuin idazketa lehiaketa bat sortu zuen. Aurten lehiaketa horren 9.edizioa da. Eskola, kolegio eta lizeo elebidunetako ikasleek parte har dezakete lehiaketa horretan.

Lehiaketa horretan 4 sail dira:

3.zikloa (CM1- CM2-6.), 4.zikloa (5.-4.-3.) eta 5.zikloa (2.-1.-Terminala) eta burasoen-helduen saila.

### • LEHIAKETAREN HELBURUAK:

- Ikasle bakoitza hizkuntzaren ikasketan lagundu, idatziaren ekoizpena garatuz.
- Ikaslearen irudimena eta idazteko gogoia sustatu.
- Euskaraz irakasten duten irakasleen arteko lotura indartu, lehen eta bigarren mailaren arteko elkarlana bultzatuz, zikloka lan eginez.
- Irakaskuntza katolikoko sail elebiduna argitara eman.
- Aurten, hitz arraroak, hitz galduak eta hitz bakanak erabiliko ditugu

-  elkarteak ezagutarazi.

### • LEHIAKETAREN EGUTEGIA:

- 2024ko urtarrilaren 15tik goiti: irakasleek beren ikasleer lehiaketa ezberdinak eta parte hartzeko baldintzak aurkezten dizkiete.
- 2024ko **apirilaren 12a**, ostirala/ortzirala: Azken epea, lanak Euskal Haziak elkarteari helarazteko, mailez edo erakasleen bidez.
- Irakasleek, beren geletan aurrehautaketa batzuk egiten dituzte, sail bakoitz 4 testu igorritz gehienez (adibidez, 4. zikloan, 4 taldeka, eta 4 bakarka. 3.zikloarentzat, eskola eta kolegioaren artean zatitua izanki, 4 testu gehienez CM1-CM2ekoentzat, eta 4 gehienez 6.ekoentzat).
- 2024ko apirilaren 12tik maiatzaren 4era: Euskal Haziak elkarteko irakurketa taldeak hoberenak sailkatzen ditu, epai-mahaiari azken sailkapena eginarazteko.
- 2024ko maiatzaren 6tik maiatzaren 11ra: Epai-mahaiko kideek sailkapen definitiboak egiten dituzte, beren erabakia Euskal Haziak elkarteari helaraziz.
- 2024ko **ekainaren 7an**, ostirala/ortzira: Sarien banaketa Euskal Haziak elkarteak antolatzen duen animazionean.

### • SARIAK:

- Ziklo bakoitzean, bakarkako eta taldekako 3 testu hoberenak sailkatuak eta saristatuak izanen dira. Orotarat, 6 sari ziklo bakoitz.
- Bestalde, sari bat eskainia izanen da helduen lan hoberenari.
- Sailkapena ekainaren 7an aurkeztuko da eta egun berean sariak banatuko.

- **EPAI-MAHAIA ETA IRIZPIDEAK :**

Epai-mahaiak irizpide horiek erabiliko dituzte testuen sailkatzeko:

- Deklinabideak, aditzen jokadura, aditza aldien koherentzia eta hiztegiaren aberastasuna.
- Narrazioaren 5 urratsen erabilera, irakurlearen interesaren sortzea, originaltasuna.
- Gaiaren errespetua, koherentzia hasierarekin, hitz kopurua eta formaren errespetua.

- **LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO ARAUAK**

- Lanak bakarka edo taldeka egin daitezke.

*Talde bat 2,3 edo 4 ikasleekin osatzen da, ez gehiago.*

- Testuaren hasiera irakurtu behar da ipuinaren jarraipena sortzeko edo irudiak balaitu testu baten osatzeko.
- Ipuinak ordenagailuz idatzia izan behar du : Arial, Times New Roman edo Garamond letra-tipoan, 12 neurrian, lerroarte 1,5.
- Hitz kopuru hau errespetatu behar da idazlanetan (hasieran diren hitzak kontuan hartu gabe):

3.zikloa: 150 hitz gutienez

4.zikloa: 250 hitz gutienez.

5.zikloa: 300 hitz gutienez.

Burasoak- Helduak: 300 hitz gutienez.

- Testuak ez ditu **3106 karaktere** baino gehiago ukanen.

*Zergatik 3106? Euskal Herrian 3 106 000 biztanle garelako...*

- Ipuinari **titulu bat** eman behar zaio
- **Orrialdearen bukaeran** xehetasun hauek agertu beharko dira :
- ✓ Egin-moldea: bakarka edo taldeka.
- ✓ Hitz kopurua eta zikloa.

*KASU ! Bidaltzen duzuen orrialdean **izenarik ez** (taula bat izanen da ondoan)*

- Irakasleak, **igorritako taula osatzen** du xehetasun guztiak sartuz (**2 erlaitz/orrialde dira**) :
- ✓ Ikastetxearen izena /herria/ irakaslearen deitura
- ✓ Testuaren titulua + egin moldea (bakarka edo taldeka).
- ✓ Ikasleen izena(k), deitura(k)
- ✓ Maila + Zikloa
- ✓ Testuaren hitz / karakteren kopuruak
- ✓ Parte hartzaileen izen guztiak (hori taulako 2.orrialdean)

Testuak berantenez 2024ko apirilaren 12ko helarazi behar dira:

e-postaz: [euskalhaziak@gmail.com](mailto:euskalhaziak@gmail.com) (word forman (**izenarik gabe**))

Xehetasun gehiagorentzat, deitu : 07 72 55 63 53

### 3. zikloko ikasleak : CM1, CM2, 6.

**Ipuin honen segida idatz ezazue, istorioa jarrai ezazue**  
(150 hitz gutienez, hastapen hau kontatu gabe).


*Euriak azkarki jo zuen gau hartan eta, trenpatu zipatua, sartu nintzen jatetxe hartan. Jende frango bazen! Beroki trenpatua, bustia, kakotik dilindan ezarri nuen. Orain, atertua baitu, hobe nuen hor berean egotea, beste uhar bat jin aitzin. Jarri nintzen eta pentsaketan ari nintzen.*

*Bi minutuen buruan, neskato bat jin zautan, galdeginez:*

*« - Egun on, Jauna!*

- Bai eta zuri ere, jan daiteke tenore hortan? Goseak hamikatua naiz. Gose naiz!*
- Proposatzen dautzugu lehenik: zurrurutuna edo arto-boska eta ondotik: burruzko opila. Edateko: pitarra?»*

*Ez bainakien batere zer ziren gauza bitxi horiek, baietz erran nuen segidan. Zorigaitzez...*



4 zikloko ikasleak :

5., 4., 3. Kolegioko ikasleak

**Ipuin bat eleberri labur bat edo testu bat idatz ezazue, marrazki hori baliatuz**

(250 hitz gutienez).

Hitz horiek erabiliko dituzue zuen idazlanan, nahi den ordenan, nahi den lekuan. Aldi oroz, hitz horiek letra lodiz agertuko dira zuen testuan.

ipurtargi

altxalili

hirusta gorri

halere

baina

-z geroztik

herrestan ibili

gau beltza



Marraskia : François Matton « Kaiola irekia da » (2018)

## 5 zikloko ikasleak : 2., 1., Teminala Lizeoko ikasleak

Irudimenezko hiztegia,

Hiztegi berezia (300 hitz gutienez).

Hiztegia erabili gabe, **nolaerran** webgunetik pasatu gabe, asma itzazu zer ditezken hitz horiek. Utz ezazu zure irudimena norazean ibiltzen, asma ezazu nahi duzuna, hitz horietatik abiatuz.

Hitz guztiak hauta zinezazke, edo bbakar bat, edo batzuk. Zuek ikus,dena posible da...

belarbeltz

errekatu

kakomotz

marrabide

neguetxe


paperkatu

sudurhauts

xakurmihi

zaramiko

zurrungari



Gérard de Nervalen eskuizkribua

## Gurasoak, helduak

**Ipuin honen segida idatz ezazue, istorioa jarrai ezazue (300 hitz gutienez).**

Zer liburutegi ederra. Denetarik baziren: munduko atlasak edo olerki bildumak, eleberriak, margotzeko liburuxkak, enziklopediak, orienteko eskuizkribuak...

Liburu guztien artean, hautatu zuen gorrixka tiki bat, armiarmaz estalia, zoko batean utzia.

Ireki zuenean...



Marraskia : Leslie Herman